Telleri azpiko Juan Alustiza.  
Zabalegi garako Joxe Berasaluce.  
Zabalegi azpiko Juan Balerdi.  
Larraondoko Juan Muñoa.  
Ganbaratxoko Anizeto.  
Etxeandiko Martin.  
Biotzez esker ona.

## Metodología

Los textos corresponden a una respuesta generalizada, es decir que es opinión común, por lo que no recojo las frases textualmente, como me lo han dicho mis informantes.

Cada guión, al inicio de frase o estrofa, corresponde a un informante, y cuando se encuentra entre comillas, es la frase textual, es por ello que a veces hay dichos, muy parecidos unos a otros, pero que han sido recogidas a personas distintas.

Cuando pongo la fecha 1940-50, significa que la costumbre, está vigente todavía en esa fecha, pero por supuesto es más antigua, por lo menos de dos o tres generaciones anteriores, ya que mis informantes, de esa época, eran ya entradas en años.

La guerra, marcó una etapa de cambio, que a veces remarco y la siguiente fecha, utilizada es la de 1990, que es lo que se hace en la actualidad, desde hace unos 20 años más o menos.

## RITOS DE PASAJE. LA MUERTE. Núms. 238 al 273

### 238. MUERTE.

- ¿Qué presagios de muerte se conocen?
- ¿Cómo se llama la agonía?
- ¿Qué prácticas se observan durante la agonía?
- ¿Qué se hace para hacerla más llevadera?
- ¿Piensa la gente más anciana, que algunos animales por su presencia o comportamiento podrían anunciar la muerte?
- ¿Qué dicen a este propósito?
- ¿Cuáles son los signos físicos, por los que se conoce que un enfermo ha entrado en agonía?
- ¿Se tocan las campanas de agonía? ¿Cómo se llama este toque?
- ¿Qué oraciones se rezan durante la agonía?
- ¿Quién les dirige?
- ¿Qué se hace para hacerla más llevadera?

¿Qué presagios de muerte se conocen?

*Eriotza.*

Norbaiten eriotza gertu dagoenean, erriko jendeak esaera hauek esaten ditu:

—...“Elizako kanpaiak “burrundade” aundie ateratzen badue, erriko norbaiten eriotza.”

Si el tañer de las campanas de la Iglesia, (matutie, amabikoa, ordubitakoa edo aimarik) resuena con mayor estruendo al habitual alguien del pueblo morirá...

—...“Elizako kanpaiak garbi zetorrek, bateon bat laster emangoik”

Si el sonido de las campanas es limpio y sonoro, pronto se llevarán a alguien.

—...“Zeraingo Kanpaiak, sokea moztu gabe, gauza onik ez zeok, sekulako burrundada zeuek...”

Las campanas de Zerain, suenan con estruendo. No tendremos cosa buena, mientras no cortemos su cuerda.

—...“Igandeko meza-erdiko kanpaia eta kanpantorreko relojunak batera jotzen badue, errian aste artan eriotza.”

Si durante la Misa Mayor dominical, coinciden el sonido de las horas del reloj del campanario y el toque de la campana del altar, alguien del Pueblo morirá durante esa semana.

—...“Etxeko zoruko-olak soñue ateratzen badue, señale txarra etxeoentzako.”

Si el entablado de la casa cruje, presagio de muerte para sus moradores.

—...“II-kanpaiak ez dira Zerañen, batekin gelditzen, jotzen asi ezker, bi edo iru aldiz joko dute, ixildu baino lenago.”

Cuando las campanas a muerto suenan en Zerain, no se callan hasta llevarse uno o dos muertos más.

Es una creencia muy común, ya que durante los últimos años, es un hecho que se ha repetido a menudo.

¿Cómo se llama la agonía?

Itz oiekin, ezagutzen da:

- Azken arnasa
- Ilzoria
- Eriotz-ordua
- Agonia
- Azkenetan dago

¿Qué prácticas se observan durante la agonía?

—Gaixoari, etxeko ama edo amona ba dauka, eta bestela etxekoaneko andrak, esaten dio gaizki dagoela il zorian, ta bere gauzak (aitormena, Jauna artu, testamentua...) ez badin ba dauzka egiñak, egiteko ordua eldu dala. Dana zarata egin gabe, karraxi edo negar aundi gabe, dena itxura tristekin baño pake-tsu.

—Jauna artu baino lehenago, gaixoak aitortu nahi badin ba zun, jendea kuartotik ateratzen zan, ta sukaldera jetxi, eta bertako atea itxi egiten zan.

Abadeak, aitorza amaitu ondoren, etxekoei, jakin arazteko, atea jotzen zun, ordun emakumeak kandela pizturik, berriz kuartora jotzen ziran.

Testamentua egin gabe ba zeon, eskribanuen billa joaten zan, Seguran bizi zan ta, Gero eskribauen falta ba zeon, apaizak testamentue idazten zuten eta iru auzoko gizon testigu bezela firmatzen zuten, apaiza edo eskribauen atzetik.

—Bitartean, garbitu eskuak eta arpegia, illea orraztu, oia izara garbiakin jantzi, eta gaxoari albada, soñen daukan jantzie aldatu. Gizona ba da, bizarra kendu.

Gaxoa ez dago beñere bakarrik, etxekoaneko andra, auzoak eta etxeoak, bere ondoan izaten dira.

Esaerak:

—“Kandela bat piztu, bere oi ondoko mai gañen ipiñi, eriotzako orduan, ergie falta ez dezan.”

—“kandela bedeinkatue piztu, eriotzen argitasuna izan dezan.”

—"Ur-bedeinkatue eskuekin gaixoari eta oian gañean bota, Aitaren eta semearen esanez."

*¿Qué prácticas se observan durante la agonía?*

—Senideak (anai-arrebak, lengusuk, osaba-isebak, eta beste famili guztia, irugarren mailaraño) eta auzokoak, il zorian dagon gaixoari bisitatu egiten dute, eta beti opari bat eramaten zaio, "bisita" deitzen dena.

Ogeitamar eta berrogeita amarkadaraño "bisita" etxean hazitako zerbait zen; olloa, arrautzak eta abar.

36.ko Gerra ondoren oitura diru baten truke aldatu zan.

Gaurko egunian diru mordo bat edo kolonia botella, ardo-goxua edo jereza edo galletak ematen dira "bisita" besala.

—Gaxoari, etxeko Ama edo Amona ba dauka, eta bestela, etxekoaneko andrak, esaten dio gaizki dagola, il zorian, ta bere gauzak (konfesatu, Jauna artu, testamentua...) ez badin ba dauzka eginga, egin. Dena zarata atera gabe...

Bitartean, garbitu eskuak eta arpegia, illea orraztu, oia izara garbiakin jantzi, eta gaxoari albada, soñen daukan jantzia aldatu. Gizona ba da, bizarra kendu.

Gaxoa ez dago beñere bakarrik, etxekoaneko andra eta auzokoak kuartoan egoten dira.

—"kandela bat piztu, bere oi ondoko mai gañen ipiñi, eriotzako orduan, argie falta ez dezan".

—"kandela bedeinkatue piztu, eriotzean argitasuna izan dezan."

—"Ur-bedeinkatue eskuekin gaixoari eta oian gañean bota, Aitaren ta semearen esanez."

—Testamentue egin gabe ba zeon, Eskribauen billa joaten zan, etxeko norbait o auzokoa, Seguran bizi zan ta, ta gero auzoko iru gizon, testigu lez eta apaiza. Eskribaue ez ba zeon, testamentue egiten zan ta gero firmatu, apaizak o eskribauek idatzi ebana.

*¿Piensa la gente más anciana, que algunos animales por su presencia o comportamiento podrían anunciar la muerte?*

*¿Qué dicen a este propósito?*

Son de conocimiento general las siguientes respuestas recogidas:

—"Ollarrak bere orduti kanpora, kurrukuka bada, etxerako señale txarra"

Si el gallo canta a deshoras, mala señal para los de casa.

—"Ollarra kurrukuka gaueko amabi aurretik, eriotzea gertun, kentzea obe."

Si canta el gallo antes de medianoche, la muerte está cerca. Para remediar el maleficio, lo mejor es matarlo.

—"Ollarra gaubez kurrukuka badago, eriotza gertun" (lepoa moztu behar zaio)

Si el gallo canta de noche, la muerte está cercana, (hay que cortarle el cuello)

—"Olloa kurrukuka (ollarra bezala) dao egunez, eriotza gertun"

Si la gallina canta como el gallo durante el día, la muerte está cerca.

—"Olloa kurrukuka daon egunen eriotzea gertun."

—"Oll oak kantatzen badu, ollarrak bezala, norbait errian ilko da"

Esaerak:

—"Illuntzeti ollarra kurrukuka zeok, berri onik ez diau izango."

—"Txakurre oiuka ba dago egunez, eriotza gertun."

Si el perro ladra lastimeramente durante el día, la muerte está cerca.

—"Etxeko txakurrek "aiuma" tristeza badu, eriotza etxen."

Si el perro de la casa, ladra lastimeramente, la muerte en casa.

—"Ontzak kantatzen badu gabez, señale txarra"

Si el buho canta de noche, mal presagio.

—"Baserri gañen, belak karrask egiten, bueltaka, badabilzte denbora luzen, baserriko norbait ilko da, edo auzo gañen bada, auzoko bat."

Si los cuervos sobrevuelan graznando, reiteradamente un caserío, alguien de la casa, morirá.

Y si esto sucede sobre un barrio, alguien del mismo morirá.

—"Elizako kanpaiak jotzen duten bitartean, txakurre zaunka asten bada, eriotza errian."

Si cuando suenan las campanas dobles de la Iglesia, el perro ladra reiteradamente, alguien del pueblo morirá.

—"Etxeko jaunei azken-arnasa eldu baino lehenago, etxekoen iruimen gabe, txakurra, makiña aldiz, kuartoan sartu ta bere oi ondoan edo azpian etzanda gelditzen da, inork ezin du andik atera."

Antes incluso de que los familiares se den cuenta, de la gravedad del "etxeko-jaune", el perro lo adivina y muchas veces entra a la habitación del enfermo, y se echa delante o debajo de la cama, sin que nadie pueda sacarlo de allí.

—Un hecho ocurrido en el caserío Garro.

"...Gure aita il zanian, olloa etxe ondoko langa gañen, gure kuartoko leioa begira, kurrukuka egon zan."

El día que murió mi padre, una gallina subida sobre la "langa" frente a la ventana de casa, estuvo "cantando" (como el gallo).

*¿Cuáles son los signos físicos, por los que se conoce que un enfermo ha entrado en "agonía"?*

—"Petxuen edo bularran "karkalarea" ateratzen badu azken-arnasan dago."

—"Betetzen aida.. laster itzalduko da..."

—"Gastatzen ai da...!"

¡Se está consumiendo como una vela!

—"...Begi-ondokoa oritzen asi bazaio, azken arnasan dago."

—"...Zugurre zorrotzen bazaio, eta begiak barrura sartu, azkenetan dago."

—"...Oñak otzak gelditzen zaizkio, eriotza gora doa...!" edo

"....., eriotza asi da beti-gora...!"

Eriotzan, oñak lehenak, otzak gelditzen dira.

—Sorgiñak diranak, oso nekez iltzen dira.

Ezaera: "Katue erreka bota bear dala sorgiñe gaztatzeko"

—Sorginak diranak, ezin dute il, beste andra bati, bere sorginkerie pasa arte, hortarako, eskua eldu behar dute beste andra batei, momentu ortan, agonie bukatzen da.

*¿Se tocan las campanas de agonía?*

*¿Cómo se llama este toque?*

1940-50: Se tocaban las campanas de "agonía" en el momento en que el enfermo entraba en agonía.  
Eran 33 las campanadas, igual para todos.

1970: Las campanas de "agonie" se seguían tocando, pero se tocaban cuando el enfermo había muerto, avisando al Párrroco, y éste a la "serora", que era la responsable de hacerlas sonar.

1990: Hoy día se siguen tocando las 33 campanadas de "agonie", pero cuando el enfermo ha muerto.

Este toque se llama. Agoni-kanpaiak  
Son 33 campanadas, que se toca una tras otra.

*¿Qué oraciones se rezan durante la agonía?*

Hasta la década de 1940-50

—"...Azken-arnasa denboran, erresoraioa erreztatzen da, kuartuan, bere izenian."

—"...Azken-arnasa denboran, letanik, Ama Birjiñan otoitzak, eriotza orduko ikasitako otoitzak... eta kuartuan dauden jende guztiak erantzun egiten du."

—"...Gure etxen, errosarioa eta letanik lenbiziko, gero Elizako libururik eriotzako otoitzak."

—"...Agonie sartu ezkeru, eriotza orduko orazioak, liburitik leitu, ur-bedeinkatue gaxoari botaz...! beste guztiak erantzun."

—Abadea Jaunekin etortzen zanian, kuartu baztarrean, emakume gizaseme jartzen ziran, kandela edo argizarie eskuan piztuta, Oi ondoan, abadea, monagillo, etxeko-andra, ta etxekoanekoa jartzen ziran, bere laguntasuna behar zalako. Abadeak otoitzak esaten zitun ta besteak erantzun.

—Jauna artu baino lehenago, gaixoak aitortu nahi badin ba zun, jendea kuartotik ateratzen zan, ta sukaldera jetsi, ta bertako atea itxi egiten zan.  
Abadeak, aitortza amaitu ondoren, atxekoei, jakin arazteko, atea jotzen zun, emakumeak kandela pizturik berriz kuartora jotzen ziran.

Durante la agonía, se rezaban, el Rosario, las Letanias de la Virgen, las oraciones de la muerte, que se leían de los libros piadosos, jaculatorias...

Se rociaba al enfermo con agua bendita, también la cama, se encendía una vela, que se colocaba en la mesilla.

Estas prácticas, son de uso común en todas las casas.

En 1990:

Gaur egun, zeraindarrak ez dira denak etxean iltzen, askok ospitalean. Orregaitik batzuk bakardadean iltzen dira, besteak, etxekoak aldamenian dauzkatela, baina "etxean bezala ez da" esaten dute.

Etxean gertatu ezkeru eriotza, azken-arnasa eldutzean, etxekok eta familiakoak biltzen dira, gaixoan inguruan eta errosarioa eta beste otoitz balzuk erreztatzen dute.

Kandela piztuta egoten da, gelan edo sukaldetan.

*¿Quién les dirige?*

Gaixoa, gizonetza bada, eta etxekoandrerik etxean ba-zeon (emaztea ezik), suñe geinetan, berak eramaten ditu errosarioa edo beste otoitzak. Bestela auzoko emakume bat izaten da, geinetan esperientzi pizka bat daukna otoitzak ematen.

*¿Qué se hace para hacerla más llevadera?*

Hasta la década de 1940-50.

Eriotza gogorra bazan, edo oñaze aundikoa, etxekoaneko andrak, auzoko etxetan meza-dirue biltzen zun, eta Bikarioari meza atera arazi len bai len gaztatzeko bizia eta Jainkoak bereganatzeko.

Alzutenak meza entzuteru joaten ziran.

Si la agonía se alargaba o era dolorosa, la primera vecina, recogía entre los vecinos del barrio, limosna para sacar una misa en la Parroquia para que Dios se lo llevara pronto consigo.

1990.

Medikua ekartzen da etxera, eta miñe kentzeko botiak ematen zaio. Kristaua badin ba da, apaizak bi edo iru bisita egiten ditu eta aitortu eta Jauna ematen dio, familikoak bere ondoan izanez, kandela piztutzen da eta errosarioa eta jakulatoriak erresatzen dira.

Gaur egun, meza ateratzeko oitura ba dago.

239. *¿Quién es el encargado de avisar al cura y al médico?*

*¿Quién debe acompañar al Viático?*

*¿Quién descubre los pies al enfermo para darle la Unción?*

*¿Qué asistencia recibe el paciente durante su enfermedad de parte de sus vecinos y parientes?*

*¿Cómo se prepara la habitación del agonizante, que recibe el Viático y la Extremaunción?*

*¿Quiénes asisten a este rito?*

*¿Quién es el encargado de avisar al cura y al médico?*

1940-50:

Etxekoaneko gizona, joaten da lenengo medikua ekartzea (Zeraingo medikua denbora honetan Seguran bizi zan, gaur egunian Mutiloan bizi da). Medikua, gaxoa ikusi ondoren, gaizki zegola esan ezkeru,, Bikarion billa joaten zan gizon berdiña.

1990:

Gaur egun, etxekoak, telefonoz deitzen diote mediku edo apaizari. Telefonoa ez badaukate, etxeko edo auzoko norbait kotxez bere billa joaten da.

Ez dago oztoporik, apaizak eta medikuak bere kasa ibiltzeko, danak kotxea daukate eta baserri guztietara kamiño zabalak eltzen dira.

*¿Quién debe acompañar al Viático?*

1940-50:

Apaiza rokete eta kapa ori motz batekin gañian jantzita, Jaune urre-kaxa borobil baten sartuta, lepotik zintzilik ematen zun, eta sorbaldan alba zorroa (azken igurtzerako olio santuekin).

Maiordomoak, ezkerreko eskuen farola, lau kandela motz piztuta dauzkala, eta eskubiko eskuen txitxarrie.

Txintxarrie, bidean zehar jotzen joaten zan, horrela soro, zelai eta kamiñotan zeuden jendeak txintxiña entzutean, belau-nikatu eta errezatu egiten zun, apaiza bere bistatik izkutatu arte.

Apaize, elizatik ateratzean, serorak kanpaiak jotzen zitun, zazpi emakumea bazan eta 9 gizasemea balitz.

Monagilloa edo maiordomoa (elizan gertuena bizitzen zana, edo etxean zagona momentu horretan) zan apaizari laguntzen ziona baserriraño.

Elizaldeko etxeak (Plazaldeakoak), kanpaiak entzutean, etxean zerenak, kandela artu eta Eliz-atarian biltzen ziran. Apaize ateratzekoan, bere atzeta lagunduz baserriraño, plazaldekoa bazan. Beste auzoko bat balitz auzo bakoitzeko "zeizio" asten zan lekuraño.

Plazaldeko zeizioko lekuak:

—Plazaldeko etxeak, zeizioa asten eta bukatzen da, bakoitzen etxe atarian.

—*Elbarrena auzoa*: Bikario-etxe kantoian (estrada bidetik)

—*Ansotegi eta Barbari auzoak*: Jauregiko etxe kantoian.

—*Aizpe eta Irukate auzoak*: Aristibarrena.

—*Lasurtegi eta Urrusti Auzoak*: Serorategi kantoian.

1990:

Gaur egun, apaiza bakarrik joaten da, ezaugarri bate gabe, ez jantzian, ezta ere Elizakok emateko.

Monagilloa ez da joaten.

*¿Quién descubre los pies del enfermo para darle la unción?*

Etxekoaneko andrak.

La mujer del primer vecino.

*¿Qué asistencia recibe el paciente durante su enfermedad de parte de sus parientes y vecinos?*

1940-50:

Gaixoa, makaltzen asten danian, etxeak, familiakoei, deia egiten die, Elizakoak artzea doala esanez.

Momentu ortatik aurrera, eta ez lenago, famili tarteakoak (irugarren mailaraño) eta auzokoak, gaixoa, bisitatu egiten dute.

Famili bakoitzeko andrak eta auzoko etxe guztietako andrak, opari bat ematen diote gaixoari, eskuz-esku, "bisita" deitzen dana.

Alkar itzegiten da, ta askotan gaxoak agurtzen du esanez "ni banoa" edo antzeko zerbait, algara gabe, ia negar gabe, triste itxurakin baño paketsu.

Gaxoarekin bost miñutu edo ordu erdi bat egoten da, denborapasa. Gero kuartotik atera, eta momentu bat sukaldean sartu-atera egin ondoren, etxera bueltan joaten dira. Ezda tertuliarik egiten.

—"Bisita"

Berrogei ta berrogeitamar amarkadaraño "bisita" etxean hazitako zerbait zan; Olloa, arrautzak, eztie eta abar.

Gerra denboran, oitura, diru truke aldatu zan, 0'25ztm. asi zan, eta urte batzutan 1, pztaraño eldu zan.

Urteak zehar 2pzta, 3 pzta, eta 1950. urtean 100pzta ematen zan, edo azukre kilo bat, o kina botilla bat.

Ordutik gaurko egunera, 1.000pzta edo kolonia botilla, galleta kaxa, edo ardo goxo botilla, ematen dira "bisita" bezela.

"Bisita", artu-emana da, eta obligazio bezala, bete behar da.

Erriko apaiza, bear dan aña, geienak beintzet, gaxoan etxera joaten dira bein baino geiagotan.

1990:

Lehen esan degun bezela, "bisita" ohitura gordetzen da, bainan ez da itxuiten gaixoa oso gaizki egon arte, bisita egiteko.

Ospitalean ba dago, etxekok edo auzokok berakin egoten dira, ta besteak bisitak egiten diote, "bisita" eroamaten.

Etxen bada, bai gaixotasunez edo zartzaroan dagolako, berdiña egiten da.

*¿Cómo se prepara la habitación del agonizante, qué recibe el Viático y la Extremaución?*

1940-50:

Gaixoa preparatu ondoren (garbitu, orraztu, bizarra kendu...), kamisa edo alkandora garbie jarri, eta gizona ba zan txapela buruan, apaiza sartu arte, eta emakumezkoa ba zan buruko garbia jartzen zitzaion. Oia aldatu.

Kuartora, mai bat ekarri, izara zuri batekin estali, lau eskiñak orratzakin lotuz (buelo gabe), gañetik oial propioa ortarako eginda zana ("eunezkoa izan beartzun gure gazte denboran, nik neuk, eskolan egin nun, erdian J.H.S. bordatuta") ta bi urregorriko kandelero, kandelak piztuta ta gurutze erdin ta santun kuadron bat, mai gañian, paretan kontra. Baso bat ur bedeinkatuekin eta erramu ardatxo bat, eta beste baso bat ur pixka batekin, gaxoari emateko edo Apaizak, Jaune eta Azken- iurtzie, eman ondoren eskuak garbitzeko.

Jaune artzeko orduan, eunezko lau kuadroko zapi bat, er-tzen puntilla edo apaingarri zeukan bat, lepo azpin ipintzen zitzaion, eta Jaune artu ondoren, kendu egiten zan.

Jaune artu ondoren, gaxoari ematen zitzaion, ur basotxoa, bainan animorik ez ba zaukan, orduan zan apaizak, beatzak

garbitzen zituna eta gero esaten zun "gelditzen dana, sù atze-  
kaldera bota". (Beko-suan)

Mai eskiña baten edo mai erdian, beste etxe batzutan, tontor  
txiki bat egiten zan, bi liburukin, ura zapi batekin estali, eta tontor  
gañian olio-santue jartzen zan, bere ondoan etxian egindako  
eunezko muñ txiki bat (farmaziko algodoia, gaur egun) prest  
eukitzen zuten, Muño edo algodoia eta sobra zan olio- santue,  
"sutara-bola" agintzen zun apaizak, ta sukaldeko beko edo  
ekonomika-txapan erretzen zan.

1990.

Gaur ere gaxoa garbitu, oraztu eta kamisoia edo pijama  
berria jartzen die. Kuartoa garbitu egiten da ta oia aldatu.

Kandela piztu.

Mairik ez da behar, apaizak zuzenean ematen du Jaune.

*¿Quiénes asisten a este rito?*

1940-50:

Etxekoak (umeak ez ezik), etxeokanekok (=etxeurrena-  
koak), eta auzoko etxe bakoitzetik, etxeokandrea edo andra-gi-  
zonak. Danak, kandela edo argizai punta bat eskuan.

Etxekoak, kandela piztuta, etxe atari aurrean, Apaizari itxoien  
zioten, eta eltzen orduko, etxeok jaun-andrak, aurretik asten  
ziran ibiltzen, kuartoko bidea erakusteko. Apaizaren atzetik,  
monagilloa eta auzokoak. Kuartora eltzean, barrun sartzen dira,  
kabitzen diran guztik, bestek atetik kanpon gelditzen ziran.  
Kuarto barrun, paretan kontra jatzen zan jendia, oian inguruan  
inor, apaizak lekua eukitzeko.

Apaiza, prest dagoen maiera joan eta bere lanak asi arte,  
sakramentuko estazioa errezatzen asi.

Jauna artu ondore, apaizak berak, ur pixka bat, gaxoari  
eskeintzen zion Urrena Azken-igurtzie asten zan. Lan oietan  
etxeokaneko andrak laguntzen zion.

Dena bukatu ondoren, poliki poliki, batak bestean atzean,  
kuartotik ateratzen zan jendia, zerbait ezanez etxekoei, ta bere  
etxeruntz bidea asi. Abadea, monagilloa edo maiordomoari,  
sukaldea jateko zerbait ematen zitzaien.

—Gertatutako kontu bat; 1950. urtean.

Txoiztegi baserrira, Elizakok ematea joan ziren, D. Frantzisko,  
erriko Bikarioa, eta Ganbaratxoko Alejandro, denbora artako  
maiordomoa, farola aundie, kandelak piztuta zemala.

Lana bukatu ondoren, sukaldean taloak erre ta jan ondoren,  
apaizek ezan zion etxeokandrari:

—"...Taloa erretzen ez zera txarra, oso onak daude..."

Apaizei, urrengo egunetan, ordain bezala, olloa ematen  
zitzaion. Oitura hau, ikusten degu jasota urte askoz lehenago,  
Elizako Liburuan. "Libro de Aniversarios y Memorias desta  
Iglesia Parroquial de Ntra. Sra. Asumpcion". Zerain 1746. pp.  
447.

1990:

Gaur egun senideak eta etxeokak.

Apaiza, monagillo gabe.

Batzutan etxeokanekok edo auzoko norbait, bañan geroz ta  
gutxiago.

240. *¿A qué causa se atribuye la muerte?*

*¿Hay creencia de que el alma sale de modo visible?*

*¿En qué forma?*

*¿Dónde se coloca al muerto?*

*¿Qué se dice a propósito de la separación del alma y  
cuerpo?*

*¿Se hace alguna apertura en la casa (ventana) o en el  
tejado (teja)?*

*¿Quién cierra los ojos al muerto?*

*¿Se juntan las manos y los pies del muerto? ¿Por qué  
razón?*

*¿A qué causa se atribuye la muerte?*

Gaitzez = Enfermedad

Ezbearra = Accidente

Zaartzaroa = Vejez

Begizkoa = Mal de Ojo

Eriotza gertatzen darian esaera oiek edo antzekoak esaten dira:

—\*...Gaxo bazeon: gaitzen poderion...\*

—\*...Bere munduko denbora bete zaio...\*

—\*...Jaio ezkerro, Eriotza bearrezkoa...\*

—\*...Jaiotza eta Eriotza, bearreskoak...\*

—\*...Azitako inor ez da gelditzen...\*

—\*...Gutxina uste degunian, eriotza atean...\*

—\*...Jaungoikoak deitu eta joan bear...\*

—\*...Betiako ez gera...\*

—\*...Danon bidea da, gaur ori, biar neri...\*

—\*...Ondoenen gaudenean, eriotza atean...\*

*¿Hay creencias de que el alma sale de modo visible?*

1949. urtean.

—"...Bai, "gogoa", gorputzetik ateratzen ikusten dala, gauza  
ezaugarria da, baino gaur egun (1949), inork ez du esaten,  
ikusten dula".

*¿En qué forma?*

—\*...ke zuri bat bezala"

—\*...baila ere, haize bolara gogorra jasotzen ba da eta  
berealaxildu, arima edo "gogoa" badoala esaten da"

Bi erantzun hoiek, 1949. urtean jasota daude, ta nere lagun-  
tzailleen izenak: Olako etxeokandrea, Andresa Arrieta (1880-  
1958); Benefiziako etxeokandrea, Patrizia Arostegi (1894-  
1974); Urrusti-erdiko etxeokandrea Luisa eta Jauregiko Dorotea  
Goya (1869-1958).

1990:

Gaur egun nere laguntzaileek ez dakite, ez dute erantzuten.



*¿Dónde se coloca al muerto?*

1940-50:

Gorputza garbitu, jantzi eta oia izara garbiaren edo koltxa bat jarri. Burukoa kendu. Gorputza gañian jarri, kaja ekarri arte.

1950:

Orain dala ogeitamar urteraño, gutxi gora bera, gorputze mai baten gañian jartzen zan, andak edo kaxa eldu arte. Kuar-toan bertan.

1990:

Gaur egun, hospitalean iltzen diranak, bertan gorputz-izara jartzen die, eta kajan sarluta, illeta ordurako, Elizara ekartzen dute.

Etxean iltzen diranak, oian gañean egoten dira, gorputza jantzita kaja eltzeako ordurako.

Kaja, etxeko komedorean edo kuartoan bertan jartzen da, gelaren erdian eta bearrezkoa bada, gelako muebleak kentzen dira.

*¿Se hace alguna apertura en la casa (ventana) o en el tejado (teja)?*

1949:

(Jauregiko Dorotea; Olako Dominica Arrieta; Urrusti-erdiko Luisa eta Ganbaratxoko Balentina Arostegi Andreak)

—“Anima, ateratzeko, tellatuko tella bat kendu bear zan eta gure denboran (oi da, eriotza orduan) kuartoko leioa erdi-iriki, Animari bidea zabaltzeko...”

1990:

Edadeko gizon-emakumeak, bere gazte denboran, tellatuko tella kentzen zala, entzunda dute.

Gaur egun, kuartoko leioa, etxe guztietan, irekita egoten da, eta ez da ixten, gorputza kuartotik atera arte.

*¿Zergatik?*

Geienak erantzuten dute:

—“...Usai txarra ez dezan in...”

—“...Aize garbia sartzeko...”

—“...aidatzeko...”

Banaka batzuk, esaten dute:

—“...Animaren bidea erakusteko...”

—“...Animaren bidea erreztatzeko...”

entzun izan deu...

*¿Quién cierra los ojos al muerto?*

Etxekoaneko andrak.

Pero primero se verifica si está muerto de verdad

—“...Lenago, begiratzen da, il egin dan”.

—“...Izpillua jarri, aoan aurrean, ia arnasa botatzen dun...”

—“...Arpegira, zigarron kea bota, ia begiak moitzen ditun...”

—“...Kandela piztuta, begian aurretik pasa...”

Esaera:

—“Gorputzek, begiak irikita zeuket, beste bat eskatzen zeok”.

*¿Se le cierra la boca?*

Bai, zapi edo tira batekin, kokotza burura lotzen da, gorputza oztu arte.

*¿Se juntan las manos y los pies del muerto?**¿Por qué razón?*

1900:

Bai, bi anak, onkatilla lekutik, gallartzu beltz batekin lotu-tzen ziran. Eskuak, antxumatu ta lotu gorputze oztu baño lehen, gurutze edo errosarioa tartean jarritz.

Gorputze oztutakoan, lotura kendu.

1990:

Eskuak, bakarrik lotutzen dira.

*¿Por qué razón?*

Ez dakit.

241. ¿Qué signos de duelo se adoptan en la casa donde ha ocurrido una defunción?

¿se cierran las ventanas?

¿se cubren los espejos?

¿los escudos de armas?

¿las colmenas?

1900-50

—“...Urte aietan, etxean eriotza gertatu ondoren, etxeko jaunek, erlategira joan, ta eskuakin erlauntze, poliki jorik, orrela esaten zien:

Lan egin

lan egin

etxeko... (ilzana aitatu) joan da

eta argizaie behar degu...”

Dorotea Goya (1869-1958)

—Etxeko Jaune il ezker, itz oiek esan ondoren, erantziten zittaion:

“Nagusi zaarra il da

eta orain nerekin

bizi behar dezue...”

—“Lana in lana

nagusie il da

eta argisaie behar degu...”

Urrusti-erdiko baserrian 1947

1950:

—“...Etxeko ate eta leio guztiak itxi, eta sarrerako atea bildu...”

—“...Gorputza zegon kuartoko leioa erdi-irikita utzi.”

—“...Izpilluak, erretrato eta kuadroak, santuenak ezik, trapu beltz batekin eztaltzen ziran.”

Zeraiñen, armaarrie, etxe gutxik daukate, ala ere Goierriko oitura betetzen dute, eta trapu beltz batekin ezaltzen dute, luto denbora guztian.

—Erleari, ez zitzairen ezer esaten.

1990.

—Etxeko ate eta leioak itxi egiten dira.

—Gorputza dagon kuartoko leioa erdi-irikita uzten da.

—Izpillu eta kuadroak ez dira ezaltzen.

—Erleari zerbait ezateko oitura galdu egin da, baina eda-  
deko jende tartean oroimena gordetzen da.

241 bis. ¿Quién asume la dirección de las labores domésticas mientras el cadáver permanece en casa?

¿Los vecinos? ¿Quiénes se entienden por tales?

¿Los de la casa más próxima?

¿Los de la vivienda del otro lado o piso de la misma casa?

¿Quiénes conducen la cruz parroquial a la casa mortuoria?

1940:

Etxekoaneko baserriko andra-gizonak, etxeko eta kanpoko lan guztiak egiten zituzten. Andrak, sukalde eta etxeko lanak, eta gizonak ganadu lanak, gorputza etxe barrun egoten zan denbora guztian.

1990:

Etxekoak eta famili tartekoak egiten dute baserriko lanak, baina oraindik etxekoanekok gertun edo esku bat botatzen dute

—Etxeko lanak zaindu edo maneatu, gorputza etxean dagon bitartean

—Auxokoak lagundu egiten dute, eriotza gerta ondoren.

Gorputza ikusi eta erresatu.

Illuntzako errosarioa errezatu.

Gau-bela.

*Etxekoana* = tellatu baten azpin bizi diran bi familiak, bat bes-  
teantzako.

*Etxe-urrena* = *Eliz-ondoko* = *Auzo-urrena* = Gurutze kamiño-  
kuzenbidean, lehendabiziko etxea.

*Aldamenekoa* = gertuena dagon etxea, edozein alde begiratur.

1990:

Etxekoanekoa = Etxekoana

Auzourrenekoa = Auzourrena

Zeraiñen, bi pisuko etxeak egin ziranian, etxekoana, beste eskuko edo beko etxekoari deitzen zaie.

*¿Quiénes conducen la cruz parroquial a la casa mortuoria?*

1940-50.

La cruz parroquial era llevada por el mayordomo o mona-  
guillo desde la parroquia hasta la casa mortuoria, precediendo

al sacerdote. Este con roquete y estola llevaba el isopo en la mano.

242. ¿A quiénes y como se anuncia el fallecimiento de una persona?

¿Quién se encarga de esto?

¿Se anuncia a los animales domésticos? ¿Cómo? ¿Quién? Indicar las formulas del anuncio de la muerte tanto a personas como a animales domésticos.

Esquelas.

*¿A quiénes y cómo se anuncia el fallecimiento de una persona?*

1940-50

Etxekoanai lehendabiziko, eta hoiiek Apaiza eta medikuari jakin arazten die.

Urrena etxekoei, errian edo kanpoan bizi arren, eta auzo-  
koei.

Denbora artan, telefono publiko bat zegon, bere ordutegi-  
kin, Benefiziaunen, ta autza joaten zan oñez, kanpokoei berrie  
emateko. Beharra izan ezkeru, auzoko etxekoak, laguntzen  
zuten.

1990

Gaur egun, etxe askok telefonoa bertan daukate eta etxe-  
koei, bertatik deitzen zaie, eta auzokoei eta lagunei, alaba edo  
errañek, geienetan emakumek, abisatzen die. Etxekoanekok  
laguntzen dute.

Telefonorik ez ba da etxian, erriko zentralitara joaten da  
etxeko norbait edo auzoko baten bat, berria ematea. Orain  
kotzea erabiltzen da joateko etxetik zentralitara.

Lehenengo deitzen da medikuari, apaizari eta Funerariari.  
Gero asten dira senide eta lagunentzako deiak.

*¿Se anuncia a los animales domésticos? ¿Cómo? ¿Quién?*

Abereari ez zaie ezer azaltzen.

Esquelas.

Gaur egun bi eskela mota daude, radio bidez edo periodi-  
kua erabiliz.

Radio Segura, eguerdiko 12etan eta arratzaldeko 7etan,  
eskelak irakurtzen ditu, orregaitik Goierrri guztiko errialdetatik,  
baltzen dituzte eskelak eta entzun ere bai.

Eskelak irakurri ondoren, errosarioa errezatzen da, eta  
etxeetan ere bai.

Periodikutan, urrengo goizean agertzen da eskela, euske-  
raz, erderas edo bi izkuntzetan.

—Radio Segurak, arratsaldero, errosarioa errezatzen du, ta  
oitura dago litzan diran alde eskeintzea. Familiak eskatzen dute.

243. ¿Se queman yerbas en la habitación mortuoria? ¿Qué yerbas?



Niños amortajados. Anterior a 1936.  
(Foto: J. Francisco Zabalozozola, de Beneficiado).

1940-50.

- "...Gorputza, etxetik eraman ondoren, talo burni gañian, zutako txingarra ipiñi erramu ostok gañean, ta erretzen utzi."
- "...Beste etxe batzutan, txingarra gañian, azukre eskukara bat, botatzen zuten eta talo-burni gañian erretzen utzi."
- "...Ezagutu det, belar-onak erretzen (San Juan erramilletakoak)"
- "...Incienso erre izan da"
- "...Baita ere, usain aundia badin ba dago, buruko pertza edo balde batian, txingarrie eta erramua erretzen da edo beste batzutan eukaliptus".
- "...Gaitza txarra izan ba da, botikan kutsu-garbitseko belarrak edo autsak erosi eta txingarra gañean bota ta utzi egun bat osoa gutxienez, leio eta ate guztik ondo itxiz."
- "...Gorputza eman ta ondorengo egunetan, kuartoa kareakin zuritu."

244. ¿Cómo se amortaja el cadáver?

¿Quién lo lava y amortaja?

¿Con qué se lava?

Describir las diferentes mortajas en función de edad, sexo y estamento.

¿Cómo se amortaja el cadáver?

Al momento de expirar, se le cierran al cadaver, los párpados con la mano, y para que la boca se mantenga cerrada, se ata la mandíbula a la cabeza, hasta el momento de amortajarle.

Antes de iniciar el amortajamiento, se asegura que la persona haya fallecido realmente, para lo cual se llevan a cabo ciertas comprobaciones.



Aristizabaleko Juanita ta Joxen jaio berri semea. 1951ko Azaro 3an. Aingeru jantzia, oitura zan bezela. Elizara andaatan gorputza agirian ekarri zan

—\*...Se levanta la ropa de la cama y se palpan los pies, a veces incluso antes de producirse la muerte, para saber si ésta se encuentra cercana, ya que se dice que los pies se quedan rígidos, antes de dejar de respirar\*.

—\*...Se coloca un espejo, delante de la boca, para comprobar si respira\*.

—\*...Se pasa una vela encendida, por delante de los ojos, para comprobar, si la luz dilata sus pupilas o parpadea\*.

—\*...Se echa humo de cigarrillo, sobre el rostro, para ver si le afecta\*.

#### *Gorputza jantzi*

Oia preparatzen da, izarak aldatu ta sobrekama zuri bat ondo estalita jartzen da, bere gañian gorputza jartzeko, kaxan sartu arte.

Lendabiziko gorputza garbitu egiten da, geienetan arpegia, lepoa, besoak, ankak, eta eskuak. Gizonak balin ba da bizarra kendu.

Gero anka tartean, zapi lodi bat (felpa al-bada), bi edo iru doblen atze aurre gerriraiño ipiñi.

Jantzi baino lenego, eta gorputza ez aizeratu eizan, batzuri ale batzuk txikituta, trapu baten bilduta, zillen gañen jartzen zaio, beste batzutan, "baita jartzen degu, batzurie bezela, zaku txiki baten, gatza lodie".

Gaurko egunian bi modu daude gorputza jartzeko, bat betiko edo tradizio modura ta beste bat 1980an sartu zan erara.

#### *Edadeko andreak*

Aldan erropa berriena, azkotan eskontzeko soñekoa, beltza edo illuna, manga luzekoa, galtzerdi beltzak. Oñetakorik gabe Eskuan errosarioa edo gurutze, baita biak.

Manteliñe beltza aundie, burutik bera, ta besotan bilduta

#### *Gizonezkoak*

Traje illuna. Alkondaraturie, lotuta, galtzerdi illunak. Oñetakorik ez. Gurutzea esku tartean, gorputz gañian.

#### *Emakume gazteak*

Soñeko ona, kolore batekoa, maga luzea. Galtzerdi argiak. Oñetakorik ez, Buruan ezer ez.

Eskuak bilduta gorputza gañian, errosarioa esku tartean.

#### *Gizon gazteak*

Traje ona, beltza ez da bearrezkoa, alkandora zurie, botoiak lotuta. Galtzerdiak traje kolorekoak. Zapatarik ez.

Burua ezer gabe.

Eskuak bilduta, gorputza gañian, gurutzea esku tartean.

Len ezan deten bezela, beste modu bat badago, hospitale-tik ekarritako moda da.

Zeraindarrak 1980n urtetik aurrera, hospitalen asten dira iltzen eta oitura berri bat sartzen da. Hau da.

Gorputza garbitu ondoren, kamisioa edo pijama berri bat jartzen zaie.

Oia preparatu eta gorputze bertan lo-ixuran sartu, buruko gañen arpegia ikusten dala.

Kajan sartzekoan aspiko izara zabaldu, besoak luzeeran jarri eta izara bere gañetik ez tali, leporaño bilduz, arpegia eta burua erakutsiz.

#### *Describir las diferentes mortajas en función de edad, sexo y estamento*

1936:

#### *Emakumeak*

Gorputza garbitu ondoren, erropa garbia jartzen zitzaion Barruko kamisa, kamiseta, azpiko gona zurie eta gonauntza. Gañetik soñeko beltza, oitura zan norberan jantzi onenakin



Niños amortajados. Anterior a 1936.  
(Foto: J. Francisco Zabaloizola,  
de Beneficiado)

jaztea, geien bat ezkontzeko soñekoarekin (txikie gelditzen badin ba zitzaion, urtean menden, espalda goitik bera moztu eta bi besotatik jantzi.<sup>1</sup>

Gañetik mantu aundie burutik bera, ta besoetan jasota. Ezkongabea bazan mantu ordez manteliñe jartzen zitzaion.

Burun orraztu ondoren pañueloa jartzen zitzaion, ta aren gañetik mantue.

Galtzerdi beltzak eta alpargata beltzak ere.

Euli denboran (udara) "eulik ez gañen ibiltzeagatik, zapi zuri batekin arpegia ez tali egiten zan..."

#### Gizasemeak

Kamiseta, alkondara zurie, estarriaño lotuta, botoi beltzez, traje osoa beltza, txaleko eta gerriko beltzakin, altzerdi eta alpargata beltzak.

Txapela esku ondoan edo jantzita.

Bai emakumeak eta bai gizonak kongregazio eskapularioa, lepotik zintzilika.

#### Urmeak

Aingeru jantzita eta lore koroia buruan.

Soñeko zurie, tela brillante batekin, lepotik beraño, onak agiriz. Galtzerdi zuriak. Oñetako gabe.

Auzoko kosturerak egiten zituzten eta beste batzutan Segurako Klarisa Konbentun enkargatzen ziran.

#### 4 eta 5 urtekoak

Jesus-aurra antzera. Gorputza eta gona tela berdiñekoa edo ezberdiña, gerrin lazo bat, galtzerdi zurik. Oñetako gabe. Buruan, lore koroia.

(1) Esaera da, Bein senarrak jakin zuenian, bere emazte, sorbaldagargin gelditu bear zitzaioala, agertu menzun bere estuasuna "baño zer egingo du nere andreak Josafat baratzen, denak biltzen geranean... - Ene gizona, zure andrea emakume artetsua zan, pareta bat billatuko du bere aurrean jartzeko erantzun zioten andreak..."

#### 12 eta 15 urte tarteko neskak

Garbitu ondoren, barrutik emakuak bezela jantzi, kamisa praka, aspiko gona ta gañetik soñeko zurie, lepotik oñetaraño, manga luzekoa. Galtzerdi zurik eta oñetako gabe. Soñekoa auzoko kosturerak edo konbentun enkargatzen zan.

#### Mutillek

Barrutik kamisa ta prakak eta gañen Jesusen jantzi zurie, gerrin kordoiakin lotuta. Galtzerdi zurik eta oñetakorik gabe.

#### Congregazioak

—Frantziskanotarrak.

Barrutik praka ta kamisa ta gainetik frailen abitua, buruko txanoa jantzita, kordioa gerrin lotuta.

Galtzerdi marroiak eta oñetako gabe

Eskapularioa lepotik zintzilika.

#### Doloretako Ama

Beti bezela emakumezko jantziarekin ta gañetik, lepotik oñetara, aurrekoaldea, tela zuri fin batekin ez talita. Burutik bera, oñetaraño luto mantue. Luto mantu oneri ertzen guztin puntilla txuri bat josita, edo kokak eginda.

Itxuraz, oian gañian Doloretako Aman itxura artzen zun.

#### Karmengo Kongregazioa

Barrutik, emakumezko jantziz jantzita. Gañetik jantzi marroia (Karmengo abitua). Gerrin kordoi zurie. Burue txano zuriz estalita. Galtzerdi zuri edo marroiak. Oñetakorik gabe. Eskapularioa. Segurako Klarisa Konbentun enkargatzen ziran.

#### Marianen Alaban Kongregazioa

Barrutik andra jantziz jantzita, ta gañetik soñeko zurie eta mantu urdiñe, burutik oñetaraño. Galtzerdi zurik, oñetakorik ez Segurako Klarisa Konbentun enkargatzen ziran.

*Luistarrak*

Barrutik, gizonaren jantzi jantzita. Gañetik sotana beltza ta rokete zurie. Galtzerdi beltzak. Oñetakorik gabe. Segurako Klari-  
sa Konbentutik ekartzen zan.

—Gorputza jazten dan bitartean, neurtu egiten da, burutik  
oñetaraño, ta familiari ematen zaio neurri oien berri, argisaie  
pres eukitzeko.

Argisari oneri "erretortue" deitzen zaio ta il dakoen neurria dauka  
luzeeran ta entierroko mezan. erre egiten da.

Oitura hau, lehen ezan deten bezela, Elizako XVIII ko men-  
dearen liburutan jasota dago, ta itza berdín berdiña da. Mezan  
ez dana erabiltzen, Elizarako ofrenda bezela gelditzen da.

1957

Erriko apaiza il zan, eta gorputza orrela jantzi zuten.

Apaizan jantzi beltza zingulokin, estola eta kasulla.

Eskuak gorputz gañian loluta ta esku-tartean Caliz bat, bere  
barruan sagar bat sartuta, ta an erantzita patena, aurrez aurre  
gelditzen zala, danan bistan.

Kaja, tapa gabe ekarri zuten elizara, ta orrela egon zan meza  
denbora guztian. Itxi zan Enterratzeko ordurako.

*Abortos*

—\*...Gorputza bazan, eunezko oialan bildu eta kartoizko  
kaxan sartu eta kanposantuan lur eman"

—\*...Gure zaarrak esaten zuten, berak ezagutu zutela, etxe-  
ko tellatu aspin, intxusen ude eroitzen dan baño barruago, lurr  
ematea".

—\*...Gorputze forma artu gabekoa bazan, etxeko lorategin  
(baratzan) lur ematen zien".

1967

—\*...lenago gorputzari jazten zitzaion oñetakoak, alpargatak  
edo zapatak, gero asi ziran esaten: ondoren oñez ez zala ibili  
bear... eta oñetakoak zertarako..."

Aia oitura kendu zan,

(80 urtetako emakumeei entzutako gauza da)

1980

Urtekada berri oñetan aldaketa bat sartzen da, Zeraindarren  
oituratan.

Zeraindarrak hospitalean iltzen asten dira, eta onek oitura  
berri bat erakartzen du.

Gorputzak, garbitu ondoren, orraztu, bizarra kendu, gizo-  
nezkoa balitz, pijama edo kamisoiá garbia jartzen zaie. Oia  
preparatu, izarak aldatu eta gorputza bertan sartu, burua buru-  
ko gañen jarrita, arpegia ikusten zaiola. Lo itxura eukitzen du.

Kajan sartzerakoan aspiko isara zabaldu, besoak luzeeran  
jarri ta izarakin estali, arpegia eta burua airen geldituaz.

1991

Gaurko egunian nola egiten diran gauzak, lehendabiziko  
galderan jasota dago eta orregaitik ez det berriro esango

*¿Quien lo lava y amortaja?*

Lan hau, iru emakume tarten egiten dute.

—Auzo edo erriko andra batek, karidadez, lan oietan oitura  
daukana. Gizaldi guztietan, egon da emakume ezkondu edo  
neska- zahar, laguntasun hau eskeintzen dutenak. Oitura eta  
errestasuna daukate, ta gorputza garbitu, prestatu ta jantzi  
egiten ditue, etxeureneko etxeoandra lagunduz eta etxekok  
ude eta erropak ekartzen. (Serorategiko Margarita Plazalden  
izan da, orain arte egin ditunak lan oiek. 84 urte)

—Etxekoaneko edo etxeureneko andrea.

—Etxeko etxeoandra edo jaune il badin ba da, etxeoan-  
dren alaba, aizpa o suiñe.

*¿Con qué se lava?*

Gorputza garbitzeko, ezagutu eta beti olan egiten degu:

—"...Erramu bedeinkatuen ostok, udetan egosi, eta ur onekin  
eta zapi batekin garbitu. Beste zapi zuri legor batekin, legortu".

—\*...Gorputza garbitzeko, erromeroa eta erramu bedeinka-  
tua naasi, egosi udetan eta úrr onekin garbitu.

—\*...Gorputza garbitu ondoren, sobran diran ostok eta ude,  
etxe ondoko baratzako lurraspin sartzen da.

245. ¿Se coloca algún objeto en la mortaja, en las manos del  
cadaver, en el ataúd o en sepultura?

¿Se coloca junto al cadaver alguna luz especial?

¿En qué habitación se coloca el ataúd: en el comedor, en  
la entrada de la casa, en la misma habitación mortuoria?

¿Se colocan además velas o lámparas, agua bendita,  
ramos de laurel, etc.?

¿Cómo se ornamenta la habitación mortuoria?

1940-50

Il-jantzita ipintzen zan:

Il-jantzita ipintzen zan:

—\*...Saku txiki bat, gatz lodiakin beteta, baita ere batzuri alek  
txikituta zapi baten bilduta zillen edo urdaillen gañen, ez aize-  
ratu edo aziltzeko".

Lepoan bere katea ta medalla.

Lepotik zinzilika soñeko gañen Kongregazioko eskapula-  
riok.

Ezkuetan kurutze txiki bat edo errosarioa, bai ta biak ere.

*Kajan*

Egun ortan bero aundia izan ezkeru edo gaitz tzarra baten  
menden eriotza gertatua izan, egurr-autze gorputzan azpin  
jartzen da.

*Bulak*

1962 arte Bikario etxetik ordainduta ekartzen ziran, ta kuar-  
toko mai gañen gorputzen ondoren eoten ziran. Kuartoa sartzen  
ziranak, limosna utzi (prezio jakiñekoak ziran) ta Bula gorputzen  
gañen jartzen zan ta Kaja barruan gelditzen ziran.

*Sepulturan*

Elizako etxeko sepulturan, jartzen ziran:

Ojal-beltza, argizaiolak argisaiakin beteta, elizsarea ta es-taltzeko eliz-ojala edo zamua.

1980

Etxean jazten diran gorputzak jarraitzen dute esan degun bezela, Kongregazioak ill dira eta eskapularioak ez dira jartzen.

Kajan ez da ezer sartzen.

Etxeko sepulturan, Ojal beltza eta argizaiolak argisaiakin beteta.

1990

